




KaraokeX

“Experiencia Naranja 07” definituko duen kantua sortzeko prozesu parte hartzailea.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Produktu bat garatzea: “Experiencia Naranja 07”-ko kantua eta koreografia. • Norberaren proiektuen garapenean talde-lana bultzatzea. • Gainontzeko parte-hartzaileei “Experiencia Naranja 07” ekimena zertan datzan komunikatu, sortutako kantua abes eta dantza dezaten. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzailea. • Talde-lana. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauza berriak egiteko eta ezagutzeko gogoia duten gazte argi eta ipurtarinak. • 10 parte-hartzaile. 	<ul style="list-style-type: none"> • 8 orduko saio bakarra.





Karaokea.

0. TESTUINGURUA

“Experiencia Naranja 2007” (EN’07) topaketetan egindako proiektua da KaraokEX. Topaketa hauek iraileko 15ean eta 16an izan ziren Torrejón el Rubio herrian (Monfragüe parke nazionala, Extremadura).

“Experiencia Naranja” egitasmo paregabea da, urtero egiten da eta “Espacios para la Creación Joven” eta “Gabinete de Iniciativa Joven de Extremadura” delakoetan parte hartzen duten gazteak biltzen ditu. Ezagutzak, esperimentazio artistikoa eta lengoia desberdinetan (ikus-entzunezkoa, eszenikoa, musikala...) adierazitako produktu berritzaileak partekatzen dituzte.

1. KaraokEX

KaraokEX “Experiencia Naranja 07” delakoan egiteko lantegia da. Jarduera ludikoa eta dinamikoa da eta parte-hartzaileek hurrengo proiektuetan baliagarri izango zaien talde-lana landuko dute.

Honela azalduko genuke KaraokEX: “Ez uste bakarrik egin ahal izango duzunik. Helburuak ezarri, lantaldea bildu eta EN’07-ko parte-hartzaile guztiek zuen kantua abestea eta dantzatzea lortuko duzue. Erronka parte hartzailea da eta dantza laranja denen oinetan egon dadin, besteen laguntza baliatzea da (eta besteek zurea, jakina) garrantzitsuenak”.



Brainstorming-a Experiencia Naranja 07-ariburuz.

2. HELBURUAK

Hona hemen KaraokEX lantegiaren helburuak:

- Produktu bat garatzea: “Experiencia Naranja 07”-ko kantua eta koreografia.
- Norberaren proiektuen garapenean talde-lana bultzatzea.
- Gainontzeko parte-hartzaileei “Experiencia Naranja 07” ekimena zertan datzan komunikatu, sortutako kantua abes eta dantza dezaten.

Bestalde IA 18 egitasmokoko helburuak ere biltzen ditu:

- Gazteengan parte-hartzea, sormena eta hiritar kontzientzia bultzatzea.
- Gizarte-agenteen (administrazioa, komunikabideak, etab.) eta gazteen arteko bitartekaritza-bideak ezartzea.
- IKTbak modu konstruktiboan erabiltzea, modu horizontalean, mundu digitalean jantzia izango den gizartea eraikiz.
- Azterketa kritikoa egiteko parte-hartzaileek duten gaitasuna garatzea.
- Gaur egungo gazteen tipologia eta interesak aztertzea (imaginarioa, nahiak, etab.).

“... esperientzia errepika dezaten kaka izan dadila ...”



Kantua sortzen.

3. EDUKIAK

¿Zer landuko dugu ? Gaiak

Zer esan nahi du “Experiencia Naranja” ekimenak parte-hartzaileentzat?

Nola komunikatu “Experiencia Naranja” ekimena gainontzeko parte-hartzaileei?

Sormen-prozesuan talde-lanak duen garrantzia azpimarratu.

4. METODOLOGIA

Parte-hartzaileak, koordinatutako hiru taldetan banatuko dira eta bakoitzak azken produktuaren zati baten ardura hartuko du:

- Musikaren letra: AC/DC taldearen “High Way to Hell” kantua oinarri hartuta, EN’07 definituko duen letra sortuko dute.
- Koreografia: Kantu berbera abiapuntu izanik, EN’07 ekimeneko “Dantza Laranja” sortuko dute.
- Marketing-a: “Dantza Laranja”-ren sustapena, EN’07-ko gainontzeko parte-hartzaileei ezagutarazteko.

Eguna amaitzean, EN’07-ko gainontzeko parte-hartzaileei landutakoa aurkeztuko zaie ahotsa eta mugimendua izango duen karaokea erabiliz. Lantegiko parte-hartzaileek gainontzeko gazteak parte hartzera gonbidatuko dituzte.

5. LANTALDEA

Lantegia egiteko gauza desberdinak ezagutu eta egiteko gogoia duten gazte aktibo eta argiak bilatu ditugu.

Gehienez **10 parte-hartzaile** izango ditu lantegiak.

6. IRAUPENA

Lantegiaren iraupena 6 ordukoa izango da eta bazkaltzeko ordu eta erdiko atsedena izango da.

7. KOKAPENA

EN’07 ekimena Torrejón el Rubio herrian egin zen (Monfrague parke nazionala, Extremadura). Lantegiak udaletxeak antolakuntzari utzitako herriko hainbat lekuetan egin ziren.

KaraokEX herriko eskolan egin zen eta lantegi guztietan landutakoa “Sede Social Municipal” delakoan erakutsi zen.



Karaokerako probak egiten.

8. MATERIALA

Materiala:

- jarduera aurrera ateratzeko lantaldea (bi begirale)
- ordenagailua
- karaoke- eta testu -edizioa lantzeko softwarea (Powervideokaraoke programa)
- inpresora
- bideo-kanoia
- errotuladoreak / pinturak
- paperak
- guraizeak / itsasgarria

Azpiegiturak:

- gela handia
- mahaia eta aulkiak



Karaoke.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta enpatia maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. SAIOA

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10
48003 Bilbao
946 053 468



Lan taldea.

www.casitengo18.com
info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK	Norberaren proiektuen garapenean talde-lana bultzatzea . Produktu bat garatzea : “Experiencia Naranja 07”-ko kantua eta koreografia. “Experiencia Naranja” ekimena zertan datzan komunikatzea .
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	Aurkezpena.	Norberaren izena duen pegatina.	Pegatinak.
10 min.	Ezagutza-jarduera.	Erretratuak.	Folioak. Errotuladoreak.
10 min.	Proposamenaren azalpena eta brain-storming-a.	Nola egingo da lantegia?	
10 min.	Lantaldeak egin.		
110 min.	Talde-lana.	EN'07-rako kantua sortu.	Ordenagailua. Kanoi-proiektagailua. Pantaila.
10 min.	Komunean jarri.	Kantuaren, koreografiaren eta marketing-planaren lehen entsegua.	
90 min.	Bazkaria.	Komunikazio-ekintza.	
120 min.	Muntatu eta probak egin.		Ordenagailua. Kanoi-proiektagailua. Pantaila.
30 min.	Kantua karaoke-programan transkribatu.		Ordenagailua. Kanoi-proiektagailua. Pantaila.
60 min.	Arrakasta izan.	Lantegiko emaitza gainontzeko parte-hartzaileei aurkeztu.	Panfletuak (kantua/letra). Ordenagailua. Kanoi-proiektagailua.

Aurkezpena ----- **10 min.**
Parte-hartzaile bakoitzak bere izena duen pegatina jarriko du eta izenen erronda egingo da.

Ezagutza-jarduera ----- **10 min.**
Erretratuak: Bikoteka jarriko gara eta 10 segundotan eta papera begiratu gabe, lagunaren erretratu egingo dugu, bukatutakoan, bikotea aldatu eta gauza bera egingo dugu parte-hartzaile guztien erretratuak egin arte.
Bakoitzak bere burua erakusten duen erretratu gustukoena aukeratuko du eta zenbait kontzeptu gehituko dizkio:
nondik datorren
zergatik eta zertarako eman zuen izena lantegi honetan



zer egin zuen aurreko gauean
zer atsegin duen egitea
lagunekin etorri den ala ez

Proposamena azaldu eta brain-storming-a-----10 min.

Lantegia azaldu ondoren, denen arteko brain-storming-a egingo dugu "Experiencia Naranja 07" zertan datzan azaltzeko asmoz: ekintzak, emozioak, lekuak, kontzeptuak, etab.

Lanerako lantaldeak egin-----10min.

Talde-lana-----120 min.

Taldeka, "Experiencia Naranja" ekimenerako kantua egingo dute. Hiru talde egingo dira eta bakoitzak azken produktuaren, hau da, karaokearen zati baten ardura izango du:

Musikaren letra: AC/DC taldearen "High Way to Hell" kantua oinarri hartuta, EN'07 definituko duen letra sortuko dute.

Koreografia: Kantu berbera abiapuntu izanik, EN'07 ekimeneko "Dantza Laranja" sortuko dute.

Marketing-a: "Dantza Laranja"-ren sustapena, EN'07-ko gainontzeko parte-hartzaileei ezagutarazteko.

Komunean jarri-----90 min.

Talde bakoitzak egindako lana komunean jarriko du. Bakoitzaren zatia zergatik eta nola garatu duten azalduko dute. Kantua eta koreografia entseatzeko hasiko dira.

Komunikazio-ekintzaz arduratu den taldeak marketing-plana azalduko du: nola zabalduko duten egindako lana EN'07 ekimeneko gainontzeko partaideen artean, bazkalorduan egingo dute.

Bazkaria-----90 min.

Muntatu eta probak egin-----120 min.

Talde guztiek komunean jarriko dute egindako lana. Ondoren, kantua eta koreografia entseatuko dira.

Kantua karaoke-programan transkribatu-----30 min.

Lantegiko parte-hartzaile guztiek emango dute laguntza EN'07-ko kantua karaoke-programan transkribatzeko. Ondoren, komunean jarri dena proiektatu egingo da.

Arrakasta izan-----60 min.

Lantegiko emaitza gainontzeko parte-hartzaileen aurrean aurkeztuko da. Taldeak koreografia dantzatuko du, kantua abestuko du eta bitartean, atzealdean kantuaren letra agertuko da. Prestatutako KaraokEX-a jarraituz, EN'07 ekimeneko partaide guztiek har dezakete parte eta hala egin dezaten, gonbitea luzatuko zaie.